# Díez Muiño: “Zientzia kulturaren funtsezko parte dela sinetsita nago”

SERGIO BASURKO

Donostia International Physics Center (DIPC) fisika eta antzeko diziplinak ikertzeko nazioarteko zentroa da, eta, gainera, ezagutza zientifikoa gizartearekin partekatzeko ardura hartzen du bere gain. Izan ere, bigarren urtez jarraian, DIPC erakundeak eta Euskadiko Filmategiak, Donostia Zinemaldiarekiko lankidetzari esker, ikastetxeetarako film bat programatu dute, Belodromoa Ikastetxeetan ekimenaren bitartez.

DIPCeko zuzendari Ricardo Díez Muiñorekin hitz egin dugu lankidetza honen zergatia argitzeko: “Nik uste jendeak irudi latz samarra duela zientziari buruz. Hortaz, gure helburuetako bat zientziaren irudi positiboa transmititzea izan da. Horren adibide dira bai Filmategiarekin bai Zinemaldiarekin elkarlanean antolatu ditugun ekimenak, kultura zinematografikoa eta zientifikoa uztartuz, orobat, film emanaldi eta dibulgaziozko hitzaldiak antolatuz. Erabat sinetsita nago zientzia kulturaren funtsezko parte bat dela”.

Zer du zinemak zientziaz eta zer zientziak fikzioz, galdetu diogu: “Zinema eta zientzia zentzu askotan elkarrekin doaz eskutik. Zinemak izugarrizko garapen teknologikoa izan du azken mendean eta hori asmakuntza zientifikoei esker izan da, kameren optikak, grabaketa gailuak, teknologia digitalak, eta abar. Baina, era berean, zientziak zinemaren eragin handia izan du zinema gizarte kultura sortzaile den heinean; zientzia fikzioa horren adibide da. Eta ezin ahaztu genezake zientzialari ero edo txoropitoaren estereotipoa”, barrezka erantzun digu.

Díez Muiñok aitortu digunez, “garai batean zinemak ez ninduen gehiegi erakartzen”, haatik, “1989ko Zinemaldiak James Whaleri eskainitako atzera begirakoan *Frankenstein* eta *Frankesteinen neska-laguna* filmak ikusi nituenean nire baitan zer edo zer hozitzen hasi zen, egun naizen zinemazale amorratua bihurtzeraino”.


Ricardo Díez Muiñoz.




Horiez gain, Christopher Nolanen lanak oso gustuko ditu, *Interstellar* bereziki, “zientziaren trataera oso serioa baliatzen du eta, gainera, gogoeta egitera bultzatzen zaitu”. Azken urteotako kutunenetakoa, berriz, Denis Villeneuveren *Arrival* du; “obraren atmosfera inguratzaile eta iradokitzaileagatik”, azaldu digu.

Zientzia fikziozko pelikula askotan hanka-sartze nabarmenak egiten direnik ez du ukatzen. Hala ere, onartzen du ez dela zergatik fikzioarekin horren zorrotza izan beharrik: “Zientzialarien hizkeran ‘hard’ edo ‘soft’ izendatzen ditugu filmetan agertzen diren hutsegiteak, beti ere, horiek duten garrantziaren arabera. Hala ere, ez genuke zorrotz jokatu beharrik, pelikulak fikzioa dira, istorioak, eta ez dute zertan erabat zehatzak izan beharrik.”

Zientziaren irudi baikorra gizarteratzeko ahalegin horretan, DIPCeko zuzendaria prest agertzen da film egitasmoen alderdi zientifikoen gainean aholku emateko: “Duela urte batzuk *Autómata* filmeko Gabe Ibánez zuzendaria eta robotika aditu Concha Monje ikerlaria harremanetan jarri nituen gidoia idazterakoan aholku eman ziezaion. Nazioartean oso normala da filmetarako aholkularitza zientifikoa; horregatik, hemen ere beste horrenbeste egin genezakeen. Gustatuko litzaidake ildo hori jorratzea”, segurtatu du.

Solasaldia amaitzeko DIPCen baitan Sheldon Cooperren (*The Big Bang Theory*) gisako lankiderik ba ote duen itaundu diogu. “Ejem, erantzun politikoki zuzena eman beharko dizut, errealitatetik eta harreman sozialetatik kanpo bizi den zientzialariaren irudia ez da oso ohikoa”, baina begi keinu eginez gaineratzen du, “gure egoitzako zoko bazterretan arakatuta, seguru baten bat topatuko duzula”.


José María Goenaga recibiendo el Premio EZAE.

ALEX ABRIL

# Llenar las salas: el mejor premio

MARC BARCELÓ

El Premio EZAE llega ya a su sexta edición. Ayer, en el Club de Prensa del Kursaal, la directora de promoción de la cultura del Gobierno Vasco, Aitziber Atorrasagasti, dio la bienvenida a los asistentes del sector con un objetivo claro y marcado: “Tenemos que conseguir que la sociedad vasca vuelva a los cines”. También hizo mención a la vital importancia que tienen todos los oficios del sector, “los necesitamos a todos; a los técnicos, a los actores, a los directores”. José Luis Rebordinos, director del Festival, deseando la mejor salud para el cine en Euskera y producciones de Euskadi, se encargó de recordar con orgullo el artículo que “Variety” ha dedicado al cine vasco, “esto, hace unos años, ni nos lo habríamos imaginado”.

Coro Odriozola, representante de la asociación de salas de Euskadi, reconoció que las películas tuvieron un papel importante durante el confinamiento pero que es hora de volver a las salas, “necesitamos que el Zinemaldia no haya sido un espejismo y que el público siga con el mismo entusiasmo”.

Recogió el premio José María Goenaga, representante en el escenario de la tríada de directores de *La trinchera infinita*, el taquillazo vasco del año pasado, galardonado con la Concha de Plata al mejor director y el Premio Irizar al Cine Vasco.

Goenaga remató su discurso haciendo una oda al arte de ir al cine: “por encima de ser amantes del cine, somos amantes de ‘ir al cine’”.

# El homenaje de la ciudad a las enfermeras

IKER BERGARA

ALEX ABRIL


Eneko Goia y la enfermera Pilar Mendia.

Ayer tuvo lugar la inauguración oficial de la Plaza de las Enfermeras en la terraza inferior del Kursaal, cuya nueva nomenclatura fue acordada unánimamente por parte de los grupos políticos municipales como homenaje de la ciudad a la profesión, que en 2020 conmemora el Año Internacional de la Enfermera y la Matrona. Conscientes de que no es momento para celebraciones, el sencillo acto con aforo limitado supuso la culminación a un proceso que se inició antes de la llegada del Covid-19.

En representación de las enfermeras de Gipuzkoa, en el acto participaron Oihana Fernández, enfermera del Hospital Universitario Donostia, Oihana Etxabe, matrona en el C.S. Zarautz, Pilar Mendia, secretaría provincial del Sindicato de Enfermería SATSE en Gipuzkoa, y Pilar Lekuona, presidenta del Colegio Oficial de Enfermería de Gipuzkoa (COEGI). Asimismo, la inauguración contó con la presencia de José Luis Rebordinos, director del Festival, Iker Goikoetxea, director-gerente del Kursaal, y Eneko Goia, alcalde de la ciudad. “El trabajo de las enfermeras va más allá de lo sanitario: empatizais con el enfermo y ponéis ánimo y consuelo en situaciones difíciles... Por todo ello, mila-mila esker”, concluyó Goia.

